

## Etiskal-irakinteari -da^okion *azpegi hetezia.*

Bidezkoa da, noski, Erri bakbitzak bera dan bezela agertu ta berak jokatzan duen erara ekitea; bidezko, egoki ta bearrena ere; berezkoa zaion ariurriz, berbera izariez, bi'zi bear eta nai badu, bere nortasunari eutsi bear-izangb dio, ortarako arreta aundienaz yardutean.

Gaurko ontan, eta sorayotasun edo lazotasun edo' ardura-gabetasunagatik, edo dan-danagatik, berdintasun bati buruz —obeki berdinkeriarekiko esango genuke— bazter guzietako gizon eta Erri'ak doazela dirudi, bide batez, bakoitzaren berezitasuna zokoratzeko. Ezifta da orri aurrerapen izena ematea, ez eta aberastasuna ere; ori izugarrizko txirotasuna dugu; bide orren zear Gizadia txirotzen ari zaigu gero ta geyago.

Naiz jantziak, naiz oiturak, naiz txarbideak batik bat, berberak agertzen zaizkigu Ludi guzian barna; ta ez dugu berdin esango onbideai buruz, auek, era berean ere, aide guztietan gutxitzen ari zaizkigulako; bafia peitzean be, berdinkeria narbaritzen da nun-nai. Nora doa orrela Gizadia?, landertasun ikaragarrian murgiltzera? Orrela dirudi, ainbeste berdinkeri itxusien bitartez..

Ezin bestekoa zaigu, orrengatik, azitasunari buruz kezka

beterik ari geranontzat, galbide ori salatzea, ta jokera orren aurka zer egin dezakegun begiratzea, gure Erri'ak eta gure Gizadi'ak ere txirotasuneruntz zearo jo-egin eztezaten zer egin genezaken asmatzea ta gogo-aberastasuna geitzeko bide egokienak idekitzea ere; norberak bere Erri'arenganako ta Gizadi' ari buruz daukan eginbidea alik eta ongienik betetzeko xedeaz.

Eta gogo orrek bereala dakarkigu burura baitezpadakoa izan diteken lenengo bidea; ots, Erri bakoitzaren nortasuna indartzea ta Erri osoan barna alik eta geyen zabaltzea, beste jokera guztien gafietik, noski. Norberaren nortasuna dugu, ezpairik gabe, usteko bearra, nortasun ori, ain zuzen, Erri'aren beraren eta Gizadi'aren aberastasuna bera dalarik. Jakina. Gizadia gizon eta Erri'en batza baldin bad a, auetako bakoitzaren ugartasun eta urritasuna, arenak ere izan bear.

Beraz, gizon eta Erria aberastean, orixe bera gertatzen da Gizadi'arekiko be, ta orrela bidea zabal-zabalik agertzen zaigu beraren barnean buru-belarri sartu ta aurreratzeke alegin aundienak burutzeko; jokera ori guzientzako onenetakoa izango zaigulakoan. Bidea. alakotz, ororentzat berbera dueu; ta ortan ibiltzeko era, aitzitik, norberari esokiena izanso zaiona. bakoitzaren ariurriak bearrena bezela agerreraiziko duenez.

Gure Erri'ari egokiena izango zaionez, euzkal-aritirria diou aintzindari bearrena: beraz. gure esinkizun gnizetan sure ariurri ori onartzekoa izan bear da. esin dezakegun fmzian nreTa iza-nez ageri ta iraun dezan. Oeron ustez. ori ioknbide artn ta garbia dugu, ororeneandik onartzekoa ta iokatzean geron baitan zalantzik sor ez dakigukun. Euzkal-ariurria, alakotz. gure Erri' arentzat aintzindari ta eusle bikana.

Lenengo baldintza ori egin diteken Ian guzirako. irakaskintza ta irazkintzarako ere bereziki. Bi eginkizun oien bitartez aurrak eratu bear baldin badira, gure irakaskintp-a ta gure irazkintza dantzan ipifii bear-izango ditugu, euzkal-ariurri berezia aur eta gazteengan lora dedin eta orrela m>nqan iraungo du gure Erri'ak bere bizi guzia bear dan eraz bilbatzean, eta bera dan bezela bizi-izatean; orixe, Erri-biziarena, elburu bearrena guzientzako izan bear baita.

Baitezpadakoa dugu elburu ortaruntz beti abiatu ta ibiltzea,

ta orrek agintzen gaitu zorrotzenik, noruntz eta nola jokatu bear dugun. Enurarik ez, alakotz, yardutean sartzeko ta sartu ondoren aurreratzeko ere. Xede ortaz, egokia dala deritzaigu, euzkal-ariurriak erakusten digun bide egoki bati buruz, gaur emen ari-izatea, ta ori nabari-eraztean euzkal-nortasunari indar egokienetakoa eman al-izango diogula uste osoan ekiteko.

Elertiarekiko aurkeztu dezakegula oar diteke orain aipatu nai duguna. Lekuona'tar Imanol eta Onaindia'tar Santi eliz-gizon onak, besteen artean, erakusten digutenez, gurean, gure Erri'an, urte ta mendeetan barna, berezko ta berez-berezia izan dugun elertia, aozko-elertia izan da beti; gizonak idazten asi ziran bafio askoz lenagotik, inork esan ezin dezaken ori, gure aberrian noizdanik izan aal danik; betikoa dala baldin badifio-gu, eztugu, eiki, txorakeririk aipatuko.

Orixe izan da, egun arte, gure elerti jatorrena; elerti ori euzkal-ao ta belarrien bitartez eoturik ukan dugu beti ere; orrengatik deitzen diogu, artez, aozko-elertia. Ta elerti orri ongienik eutsi diotenak, euzkal-bertsolariak izan ditugu; oie-txek izan dira gure aozko-olerkariak, Erri'arekin beti bat-bat egifiik agertzen zaizkigularik. Ongi dakigunez, len eta orain ere, beren bertsolariai entzutera gogo ta lera bizi ta aundienekaz, joan eta joaten zaizkigu gure erritarrak, gure bazter guzietan barna. Orra egipena, nabari-nabari agertzen zaigun euzkal-egipen berezia.

Beraz, gure aurrak euzkal-ariurriaz egokiro eratzeko, ez ote da ona izango, ez esandakoaren berria jakin-eraztean bakarrik, bana jokera ortan eta euzkal-zaletasun ortan eratzea? Ezpairik ez guretzat; elerti ori, euzkal-aozko elerti ori, bide batez eresi, abesti ta bertsoetaz buruturik izan da betidanik gurean, eta iru bide oiek alkaturik, egokienez eratuko dizkigute gure aurrak, gaurkotz eta gerorako ere. Alakotz, naiz eresia, naiz abestea ta bertsoetan ari-izatea, aurrentzako egikizun on eta egokienetakoa izango da.

Orrela jokatzean, enurarik ez, aurren gogoia, euzkal-gogo-ariurriaz borobil diteke; indartzerik egiteke, solasean eta atseginezko alegifietan bafio. Nun-nai noski, bana gurean bereziki, aurrak abesteko gogoia agerrerazten dute alaiki, ta gurean gafia ortarako jite bereziaz, Erri'arena ain zuzen orixe baita.

Qrrengatik, beti izango zaigu gure artean, ororen berezko zaletasun ori aurrengan piztu-eraztea edo berez daukatena alik eta geyen indartzea; beti ere gure bertsolariak eredu aurkeztean,

GerO, ikastolatik at, etzaie zalla izango gure aurrai, erriko jaietan egiten diran bertsolarien yardunetafa erdutea, eta bertan ikusi ta entzungo dutena ikastolan. ikasitakoa bera, enparantzan bertan berriztua bezela onartu dezakete erraz. Areak, gure irazkintza ikastolan eta enparantzan bilbaturik euki dezakegu-ondo, ta gure aurrentzat bide egokienetakoa sor diteke era ortaz, beren ikasketarako ta beren azitasunerako ere, bide batez, Erri'arentzat be guztia onuragarria izatean.

" Ona emen euzkal-irazkintzarako, jokera on eta egokia iruditzen zaiguna, gure-gurea izan ditekena ganera, Erri'aren beraren oituretan sortua bezela ar dezakegun, osorik eta aide guzietatik Erri'arena bezela onartzekoa izan ditekena. Erri'aren bafio obekiago eginkizun ori buru al-izatea? Bide ortan azitako aurrak, euzkal-aur jatorrak izango ditugu, beren osotasunean Erri'aren jatortasunari eten gabeko indar berria ematean. Euzkal-azitasunaren bide berezia ikus dezakegu ortan, eta bide batez Erri'arenganako bidea bera ere. Ez ote da ona izango orrela joka diteken euzkal-irazkintza?; baietz erantzuteko bearrean geralakoan gagoz.

Euzkal-aurren azitasuna, beti, Erri'aren aide jokatzeko bide ederrenetakoa izan bear, gurean eta edonun; alakotz, aurrak, euzkaldun-zurrian eratu ta azieraztean, aberriaren aide jokatuko dugu, era on eta egokienaz bezela. Orra, arean, euzkal-irakasle ta azleak gure ta ororen Erri'aren aide jokatzeko bide berezi ta goragarria. la guzion aldetik arazo au begira ta erabillita ote dan orain eta beti.

*Uriubia*